

ITZULPEN ARAZO BATZUK AITA IPOLITO
LARRAKOETXEAREN «ERROMA'KO ELEIZEAREN
ARAUDIA»REN ELIZAKO KARGU-MAILAK
AZTERTUERAN

0) Sarrera

Aita Ipolito Larrakoetxeak, *Codex Iuris Canonici* itzultzeari ekin zionean, arazo bat topatu zuen, nahitaez konpondu beharrekoa: Elizako kargu-mailen izenak euskaraz zelan eman. Berak hartu eta jorratu zuen bidea aztertu eta sakontzeari heldu nahi diot artikulu honetan, berak arlo horretarako aukeraturiko ordainak eman eta iruzkinduz. Horretarako, ondoko testuok erabiliko ditut: lehenengoa, *Codex Iuris Canonici*¹, izan ere, 1917koa; hurrengo, aita Ipolitok berak aurreko testuari latinetik emaniko itzulpena, *Erroma'ko Eleizearen Araudia*², alegia;

¹ MIGUÉLEZ DOMÍNGUEZ, Lorenzo; ALONSO MORÁN, Sabino; eta CABRE-ROS DE ANTA, Marcelino: *Código de Derecho Canónico y legislación complementaria*. 6. argitaraldi elebidun eta iruzkiduna. Biblioteca de Autores Cristianos. Madril. 1957.

² LARRAKOETXEA, Ipolito: *Erroma'ko Eleizearen Araudia*. Kardaberaz bilduma, 32. Librería Técnica de Difusión. Gasteiz. 1978.

Larramendiren hiztegi hirukoitza³; UZEIren *Erljioa* hiztegia⁴; eta, azkenik, *Diccionario etimológico latino-español*⁵.

Gaur egun eragozpen gutxiko begitantzen zaizkigun arazoei egundoko traba ekarriko ei zioten aita Ipolitari, batez ere ordura arte alor hura jorratzeke eta maila apalean baino lardas-katurik ez zegoela erreparatuz gero.

Eliz arazoetan, legelari legez abade, buru-belarri sartuta ibilizen gizon honen lana ez ahal da alferrik galduko!

1) Elizako kargu-mailak *Codex Iuris Canonici*ren barruan

Codex Iuris Canonici (aurrerantzean CIC) *bost idaztik* (a. Ipolitok horrela deritze *liber-ei*⁶) osotzen dute; Elizako kargu-mailak CICen lehenengo idaztiaren barruan ageri dira; idazti hau hiru *zatik* (*pars*) osotzen dute: lehenengo zatiak *eleizgizonen* gainean dihardu (*de clericis*), bigarrenak, berriz, *Jaunzaleez* (*de Religiosis*), eta hirugarrena *Kistar erritarrei* (*de laicis*) dagokie.

Eleizgizonen gaineko zatiak hiru *txatal* (*sectio*) dauzka, zeinetarik lehenengoak sei *idazpuru* (*titulus*) dituen, eta bigarrenak bi; bigarren zatian, berriz, ez dago txatalik, baina bederatzi idazpuru ditu; eta hirugarrenak, beste bi idazpuru, txatal barik.

Gainera, CIC osoan barrena Elizako kargu eta maila ezberdinen gaineko aitamenak txitean-pitean ageri dira, nork bere kargua egikaritzen duela, eta dituen eskumenak, eginbeharrak eta onurabideak agertarazten direla.

³ LARRAMENDI, Manuel de, s.j.: *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. 350 aleko argitaraldi fakzimila. Txertoa argitaldaria. Iruñea. 1984.

⁴ UZEI: *Erljioa hiztegia*. Elkar. Donostia. 1987.

⁵ SEGURA MÚGICA, Santiago: *Diccionario etimológico latinospañol*. Anaya. Madril. 1985

⁶ Hemen erabiliko dudana hiztegia, besterik esan ezik, aita Ipolitok berak erabilitakoa izango da.

2) Aita Ipolitok CICeko kargu-maila ezberdinei esleitzen dizkien ordainak

Lehendaurrez esan dezagun ezen a. Ipolitok latinetik euskaratu zuela *Erroma'ko Eleizearen Araudia*; beraz, nik latinetik euskarara ageri diren ordainak aitatuko ditut. Edozelan ere, inork argitasun gehiago nahi izan baleza, gorago adierazitako liburuetara jo lezake.

Latina	Euskara ⁷
<i>De Personis</i> ⁸	Nortzuk
<i>De Clericis</i> ⁹	Eleiz-gizonai buruzkoa
<i>De Romano Pontifice</i> ¹⁰	Erroma'ko Obispo edo Aita Santua
<i>De Concilio Oecumenico</i> ¹¹	Elexa osoaren Batzarra
<i>De Sanctae Romanae Ecclesiae Cardinalibus</i> ¹²	Erroma'ko Elexa Santuaren Kardinalak
<i>De Curia Romana</i> ¹³	Aita Santuaren Lantegiak
<i>De Sacris Congregationibus</i> ¹⁴	Bazkun Gurenak

⁷ Euskarazko ordainak emateko bi aukera daude: bata, corpusean zehar ageri direnak ematea; eta bestea, *Erroma'ko Eleizearen Araudiaren* azken orrialdeetan, *billabidean* alegia, euskaraz eta latinez daudenak agertaraztea. Nik bigarrena aukeratu dut, baina ondorengo atalean berezitasunak eta ezaugarriak azpimarratuko dira.

⁸ Bigarren idaztiaren izenburua.

⁹ Bigarren idaztiaren lehenengo zatiaren izenburua.

¹⁰ Zazpigarren idazpuruaren I. atalaren (*capitulus*) izenburua.

¹¹ Zazpigarren idazpuruaren II. atalaren izenburua.

¹² Zazpigarren idazpuruaren III. atalaren izenburua. Oker bat dela medio, aurkibidean "Cardenalibus" ageri da.

¹³ Zazpigarren idazpuruaren IV. atalaren izenburua.

¹⁴ IV. atalaren 1. atalkiaren (*articulus*) izenburua.

Latina	Euskara
<i>De Tribunalibus Curiae Romanae</i> ¹⁵	Aita Santuaren Erroma'ko Epaitegiak edo Auzitegiak
<i>De Officiis Curiae Romanae</i> ¹⁶	Aita Santuaren etxeko Idazkolak
<i>De Legatis Romani Pontificis</i> ¹⁷	Aita Santuaren Ordezkoak
<i>De Patriarchis, Primatibus, Metropolitanis</i> ¹⁸	Erkabak, Lenengoak, Obispo-Buruak
<i>De Conciliis plenariis et provincialibus</i> ¹⁹	Batzarrak: a) Beteak; b) Obispo-buru-erkikoak
<i>De Vicariis et Praefectis Apostolicis</i> ²⁰	Aita Santuaren Ordezkoak eta Erki-Buruak
<i>De Administratoribus Apostolicis</i> ²¹	Aita Santuaren bein-beineko Goterkizañak
<i>De Praelatis inferioribus</i> ²²	Eleiz-Nagusi apalagoak
<i>De Episcopis</i> ²³	Obispoai buruzkoa
<i>De Coadiutoribus et Auxiliariibus Episcoporum</i> ²⁴	Obispoen Lankide ta Laguntzalleak
<i>De Synodo dioecesana</i> ²⁵	Goterki-batzarra

¹⁵ IV. atalaren 2. atalkiaren izenburua. Hemen errakuntza bat dago, zeren testuan "Romana" ageri den, latineko 1. deklinabideko genitibo singularrak -ae amaiera eskatzen duela.

¹⁶ IV. atalaren 3. atalkiaren izenburua.

¹⁷ Zazpigarren idazpuruaren V. atalaren izenburua.

¹⁸ Zazpigarren idazpuruaren VI. atalaren izenburua.

¹⁹ Zazpigarren idazpuruaren VII. atalaren izenburua.

²⁰ Zazpigarren idazpuruaren VIII. atalaren izenburua.

²¹ Zazpigarren idazpuruaren IX. atalaren izenburua.

²² Zazpigarren idazpuruaren X. atalaren izenburua.

²³ Zortzigarren idazpuruaren I. atalaren izenburua.

²⁴ Zortzigarren idazpuruaren II. atalaren izenburua.

²⁵ Zortzigarren idazpuruaren III. atalaren izenburua.

Latina	Euskara
<i>De Curia dioecessana</i> ²⁶	Obispoaren etxeakoak
<i>De Vicario Generali</i> ²⁷	Danerako Ordezkoa
<i>De Cancellario aliisque notariis et archivo episcopali</i> ²⁸	Idazkaria (Zadorlaria) ta beste Zi- ñaldariak eta goterkiko agiritegia
<i>De examinadoribus synodalibus et parochis consultoribus</i> ²⁹	Batzar-aztertzeak eta parroki-zain- aolkariak
<i>De Capitulis canonicorum</i> ³⁰	Legezko eleiz-gizonezko Batzarrak
<i>De consultoribus dioecessanis</i> ³¹	Goterki-aolkariak
<i>De Vicario Capitulari</i> ³²	Batzar-Ordezkoari buruzkoa
<i>De vicariis foraneis</i> ³³	Parroki-zainburuak
<i>De parochis</i> ³⁴	Parroki-zañak
<i>De vicariis parochialibus</i> ³⁵	Parroki-zain-ordezkoak
<i>De ecclesiarum rectoribus</i> ³⁶	Eleiz-zañak
<i>De Religiosis</i> ³⁷	Jaun-zaleai buruzkoa
<i>De superioribus et de Capitulis</i> ³⁸	Nagusi ta Batzarrak
<i>De confessariis et cappellanis</i> ³⁹	Autortza-entzuleak eta eleiz-zañak

²⁶ Zortzigarren idazpuruaren IV. atalaren izenburua.

²⁷ IV. atalaren 1. atalkiaren izenburua.

²⁸ IV. atalaren 2. atalkiaren izenburua.

²⁹ IV. atalaren 3. atalkiaren izenburua.

³⁰ Zortzigarren idazpuruaren V. atalaren izenburua.

³¹ Zortzigarren idazpuruaren VI. atalaren izenburua.

³² Zortzigarren idazpuruaren VII. atalaren izenburua.

³³ Zortzigarren idazpuruaren VIII. atalaren izenburua.

³⁴ Zortzigarren idazpuruaren IX. atalaren izenburua.

³⁵ Zortzigarren idazpuruaren X. atalaren izenburua.

³⁶ Zortzigarren idazpuruaren XI. atalaren izenburua.

³⁷ Bigarren idaztiaren bigarren zatiaren izenburua.

³⁸ Hamargarren idazpuruaren I. atalaren izenburua.

³⁹ Hamargarren idazpuruaren II. atalaren izenburua.

Latina	Euskara
<i>De postulatu</i> ⁴⁰	Jaunzale ateaurrekoak
<i>Postulantes</i> ⁴¹	Jaunzala-geyak
<i>De novitiatu</i> ⁴²	Azi-ezitaroa
<i>Adspirantes</i> ⁴³	Jaunzale-gei
<i>De novitiorum institutione</i> ⁴⁴	Jaunzalegayen azi-ezikerea
<i>De laicis</i> ⁴⁵	Erritarrak
<i>De Tertiis Ordinibus saecularibus</i> ⁴⁶	Gizarteko Eren-Jaunzaleak
<i>De confraternitatibus et piis unionibus</i> ⁴⁷	Anai-arreba-bazkunak eta Onegin-tza-bazkunak
<i>De Archiconfraternitatibus et primariis unionibus</i> ⁴⁸	Anai-arreba-Bazkuna-Buruak eta Onegintza-Bazkuna-Buruak
<i>Ordinarius, a, um</i> ⁴⁹	Gotzain

Goiko zerrendan ageri diren kargumailak ez dira *Erroma'ko Eleizearen Araudian* dauden guztiak, bai, ordea, *billabidean* daudenak; edozelan ere, *postulantes*, *adspirantes* eta *ordinarius* berbak bilabidetik barik arauetatik (horrela deritze *cano-nei*) harturik daude.

⁴⁰ Hamaikagarren idazpuruaren I. atalaren izenburua.

⁴¹ 540. *arauean (canon)* ageri da.

⁴² Hamaikagarren idazpuruaren II. atalaren izenburua.

⁴³ 544. *arauean*.

⁴⁴ II. atalaren 2. atalkiaren izenburua.

⁴⁵ Bigarren idaztiaren hiruren zatiaren izenburua.

⁴⁶ Hemeretzigarren idazpuruaren I. atalaren izenburua.

⁴⁷ Hemeretzigarren idazpuruaren II. atalaren izenburua. Moldiztuts bat dela bide, *Erroma'ko Eleizearen Araudian* "I. Atala" ageri da.

⁴⁸ Hemeretzigarren idazpuruaren III. atalaren izenburua.

⁴⁹ Besteak beste, 15, 34-3, 36, 43, 44, 47, 66, 81 eta 136. arauetan.

3) Euskal testuaren gaineko azterketa

Lehenengo eta bat, xehetasun garrantzitsua ekarri behar da hona: agi denez, garai ezberdinetan eginda daude corpora eta aurkibidea; gainera, eta aitatuko ditudan adibideak erakusgarri, ordainak aukeratzeko orduan ere, irizpide ezberdinak erabili dira. Hori horrela ez izatera, beste aukera bat dago: beste esku bat bitartean sartua izana. Zelan edo hala, badaude aztarnak lehenengo aukeraren aldeko baieztapena egiteko.

Baieztapen horren euskarri, hiru motatako zioak azal daitezke:

- a) *Deklinabidearen alorrekoak,*
- b) *Morfojoskeraren alorrekoak,* eta
- c) *Hiztegi eta itzulpenaren alorrekoak.*

a) Deklinabidearen alorrekoak: arauen edukinean barrena, deklinabide mota batera jotzen da, bilabidean, aldiz, beste bat hobetsi da, barbarako, bigarren idaztiko lehenengo zatiaren lehenengo txatalari *Eleiz-gizonak* deritzo, bilabidean, aldiz, *Eleiz-gizonai buruzkoa*; bigarren zatian, corpusean *Jaun-zaleak* ageri da izenburu legez, bilabidekoa *Jaun-zaleai* buruzkoa delarik; beste horrenbeste esan liteke XV. idazpuruaren gainean, non bilabideko *Jaunzaletzatik alde egiteaz* testuarekin batera, corpuseko *Jaunzaletzatik alde egitea* ageri den. Kasutan deklinabide kasuak elkarretarik urrun dauden bitartean, jarraian ikusiko den adibidean deklinabide kasuak ideak ditugu joskeran betetzen duten eginkizunaren aldetik: V. idazpuruari bilabidean *Norbere-norberena dan eta iñork bere ordezkoa egiteko emona dan alari buruzkoa* deritzo, baina corpusean bertan *Norbere-norberena dan eta iñork bere ordezkoa egiteko emona dan alaz* dihardu.

Beste batzuetan, ostera, deklinabide-kasu bera darabil, baina bata huts-hutsean dagoen bitartean, bestea hornituago ageri zaigu, zelan den bilabideko XVI. idazpuruako II. ataleko izenburua, non *Betiko berbea emonak...* buruzkoa, edukineko

izenburuan *Betiko berbea emonak... buruz* dagoen; kasu bera gertatzen da hirugarren zatiko XVIII eta XIX. idazpuruetan. Badago jazokizun bat aztertu beharrekoa: bereiztasun horiek ez daude nahasmahasean emanda, baizik deklinabide-kasu jantziak bilabidean ageri dira, biluzik daudenak corpusean zehar barreiatzen diren artean. Aurreko kasuan bezala, a. Ipolitok nahita jokatu duela esan liteke.

Deklinabidearen alorrean ere, baina beste maila batean, kasu aniztasuna ere ageri zaigu, hala nola IV. idazpuruko II. atalaren izenburuan eta X. idazpuruko III. atalaren izenburuan. Lehenengoan, bilabidean *Eleiz-zeregiñak zelan galtzen direan* ageri dela, corpusekoan *Eleiz-Zeregiñok zelan galtzen direan* irakur liteke; bigarrenean, bilabidean *Ondasunak eta eurok zaintzea* esaten da, corpusean bertan *Ondasunak eta eurak zaintzea* irakur daitekeen artean. Deklinabideko kasua nominatibo plurala dugu bietan, baina batean markagabea den bitartean, bestean hurbila darabil. Hemen, aldiz, badirudi oharkabean isuritako hutsunea dela.

Zelan-nahi ere, arazorik larriena ez da, nire irudiko, goian aitaturikoa, baizik corpus osoan zehar bezala bilabidean, idazpurutik idazpurura, ataletik atalera e.a., jazotzen den deklinabide-kasuen ugaritasuna, zeren deklinabide-kasu bat aukeratuz gero, barbarako, idazpuruetan nominatiboa erabiltzea, ez baita egokia lantzean-lantzean aldatzea teknika juridikoari dagokionez (hau ez da literatura): XII. idazpuruan, *Eleiz-gizonezko Jaunzaletzetako ikasketak* eta XV.ean, berriz, *Jaunzaletzetatik alde egiteaz*, non instrumentala ageri den.

Atal honen barruan badago *edo* lokailuak eragiten duen desoreka bat: VII. idazpuruko I. atalean, *Erroma'ko Obispo edo Aita Santua* ageri da bilabidean, baina corpusean *Erroma'ko Obispoa edo Aita Santua* azaltzen da.

Azkenik, eta kasu berezi legez, VIII. idazpuruko VIII. atala dugu: latinezko sarrera garbi dagoenez gero, de vicariis foraneis, bilabideko sarrera, Parrokizainburuak zuzenaren ondoan,


corpusean isuri den Parrokizainburua moldiztutsa baino ez dela uste liteke.

b) *Morfojoskeraren alorrekoak* nahikoa zabal ageri dira, bertan sartu baititut morfologiari beren beregi datxezkionak ez-ezik, ortografiakoak ere, bereziki letra xehelarren erabilerraren ingurukoak.

a') Lehenik, letra xehe-larren erabilerran topaturiko desorekak aitaturko ditut. Lehenik, bilabidean letra xehez eta corpusean letra larriz emanikoak ageriko ditut, hala nola IV. idazpuruko II. atalean, non *Eleiz-zeregiñak...* dagoen idatzita, baina corpusean zehar, *Eleiz-Zeregiñok...* Gauza bera jazotzen da VII. idazpuruko X. atalean, *Eleiz-Nagusi apalagoak* eta *Eleiz-Nagusi Apalagoak* ageri direlarik; orobat, VIII. idazpuruko I. ataleko III. atalkian, *Batzar-aztertzalleak* eta *parroki-zain aolkariak* eta *Batzar-aztertzalleak* eta *parroki-zain Aolkariak*; XVI. idazpuruko II. atalean *Betiko berbea emonak eleiz-gizonezko Jaunzaletza azkatu bakoan edo erri-gizonezkoetan jaunzaletzatik yaurtigiteari buruzkoa* eta *...Jaunzaletzatik...*; eta III. atalean, *...jaunzaleak* eta *Jaunzaleak...*

Hala ere, letra xehe-larren arteko orekagabezia hori ez da beti horrela ematen, ezik beste batzuetan letra larriak agertzen dituen zatia bilabidea da, corpusean zehar letra xehea erabilia dagoelarik: VII. idazpuruko II. atalean, *Elexa osoaren Batzarra* eta *Elexa osoaren batzarra* agertzen dituzte bilabideak eta corpusak, hurrenez hurren; orobat III. atalean, *Erroma'ko Elexa Santuaren Kardenalak* eta *Erroma'ko Elexa santuaren Kardenalak* agertzen dituzte hurrenkera berean; IV. atalean, *Aita Santuaren Lantegiak* eta *Aita Santuaren lantegiak*; eta hirugarren zatiko XIX. idazpuruko III. atalean, bilabideko *Anai-arreba-Bazkuna-Buruak* eta *Onegintza-Bazkuna-Buruak* izenburuaren aurrean, corpusean bertan dagoen *Anai-arreba-Bazkuna-Buruak* eta *Azku-bazkuna-buruak* ikus daitekeelarik.

b') Beste batzuetan, berba bat modu bitara ager liteke idatzita; adibide gisa, eta lehenengo bikotekidea bilabidekoa dela-



A. Ipolito Larrakoetxea. Karmeldarra.

rik, hona hemen batzuk: *iñork* eta *iñok* V. idazpuruan, eta VII. idazpuruko IX. atalean *bein-beineko* eta *bein-beñeko*. Kasu berezia *jaun* hitzaren eratorriekin gertatzen da: gehienetan *j* ageri bada ere, *Jaunzaletza*, badugu adibideren bat edo beste *y* dakarrena, hala nola XIV. idazpuruko *Yaunzaletza*; horrezaz gainera, *jaun* berbari *-zale* atzizkia erasten dionean, gehienetan *-t* epentetikorik gabe ematen badu ere, badira kasuak, zeinetan epentetikoa sartzen duen, berbarako, XIX. idazpuruko I. atalean, bilabideko *Gizarte Eren-Jaunzaleak*, baina corpusean, *Gizarteko Eren-Jauntzaleak*.

Itzulpena bizkaierara emanda badago ere, badaude bizkaieratik kanpo edo bizkaieraren muturreko gipuzkoeratiko aldagai fonetiko batzuk ageri zaizkigunak, esate baterako, bilabidean, XI. idazpuruko II. ataleko I. atalkian *Jaunzalegayen* ageri da, corpuseko *Jaunzalegeyenen* aurrean; eragin bera ageri da aditzizenetan, eta XVI. idazpuruan, bilabideko *yaurtigitzearen* ondoan, corpusean *yaurtigitzea* ageri da.

Aditz jokatueta ere ageri da zelanbaiteko zalantza, zelan den VII. idazpurukoa, non bilabideko *daukenai* formarekin batera, corpusean *daukienai* dagoen.

Batzuetan perpausaren eraikuntzak erabat ezberdinak dira corpusetik bilabidera, puntuazio ezaugarriak ere aldatzen direla, hala nola I. idazpuruan, *Eleiz-gizona zein goterkiko* dugu bilabidekoa, eta corpusean dagoena, ostera, *Zein goterkiko eleizgizona?*

Aparteko legez erabili nahi dut hitzelkarteen arazoa. Arazoari sakonsakon heldu barik, badira bi gai iruzkindu gura nituzkeenak, nola diren marraren erabilera eta berrelkarketa. Horretarako, zenbait adibidez baliatuko naiz.

Marraren erabilerari dagokion ginoan, bi berezitasun azpimarra litezke. Lehenengoa, hitzelkartearen lehen osagaia zenbaitean deklinaturik ematen du, eta gainera marra erantsi dio: VII. idazpuruko IV. ataleko III. atalkian, bilabidean *Aita Santuaren*

etxeko Idazkolak ageri bada ere, corpusean zehar *Aita Santua-ren etxeko-Idazkolak* irakurtzen da; edozelan ere, inork uste badu hori halabeharra, zabarkeria edo antzeko zerbait izan daitekeela, hirugarren zatiko XIX. idazpuruko III. atalera jo dezake, bertan *Anai-arreba-Bazkuna-Buruak* eta *Onegintza-Bazkuna-Buruak* bilabidean, eta corpusean bertan *Anai-arreba-Bazkuna-Buruak* eta *Azku-bazkuna-buruak* daudelarik. Marra idazteko orduan, agi denean, zenbait zalantza izan zuen a. Ipolitok: badirudi batzuetan ez dakiela noiz jarri marra, noiz idatzi loturik, edo noiz bereiz (ez da harritzekoa, gaur egun ere zenbaitetan ageri den nahasmahasa lekuko. Beharrik, Euskaltzaindiak arauak eman ditu eta, neurri handi batean, arazoak konpondu bidean daudela esan liteke). Honetara, batzuetan marra darabil, XVI. idazpuruko II. atalean legez, non *erri-gizonezkoetan* baitago bilabidean, baina corpusean *errigizonezkoetan* dakar. Berezia da hurrengo kasua: XI. idazpuruko I. atalean, *Jaunzale ateurrekoak* bilabidekoaren aurrean, corpusean *Jaunzale-ate-aurrekoak* darabil; berrelkarketaren hautabidea aposizio hutsa gehi marra erabiliz gorpuztu du.

Aurreko puntuari helduta, berrelkarketaz jardungo dugu, zeren eta sarritan erabiltzen duen lanabesa baita. Adibide gisa, horra doaz ale batzuk: VIII. idazpuruko VIII. ataleko *Parroki-zain-buruak*, eta lehen aitaturiko hirugarren zatiko II eta III. ataletakoak, zeinetan hiru berbarekin ez, baina lau berbako berrelkarketak ageri diren, esaterako, *Anai-arreba-Bazkuna-Buruak*.

c) *Hiztegi eta itzulpenaren alorrekoak*. Bigarren txatalaren izenburuan bi aldagai ditugu: bilabidean, *Eleiz-gizon batzui buruzkoa*, eta corpusean *Eleiz-gizon bereziei buruzkoa*. Latinezko corpora *De clericis in specie* da. Nire ustez, ez bata, ez bestea dira betebeteak ordain legez; edozelan ere, berak aldatu beharra ikusteak ere horrelako zerbait antzemarazten du. *Código de Derecho Canónico y legislación complementarian* ematen den gatzelerazko ordaina *De los clérigos en particular* dugu.

Batzuetan, corpusean bertan darabilenari ilun edo iritzirik, haren azalpena ematen du bilabidean, berbarako: VII. idazpuruko IV. ataleko II. atalkian *Aita Santuaren Erroma'ko Epaitegiak edo Auzitegiak* irakur daiteke, corpusean, ostera, *Aita Santuaren Erroma'ko Epaitegiak* dagoela; horren aurkako kasua dugu hurrena: bilabidean, idazpuru bereko VI. atalari *Erkabak, Lenengoak, Obispo-Buruak* deritze, baina corpusean *Erkabak (Patriarchae), Lenengoak (Primates), Obispo-Buruak (Archiepiscopi, Metropolitanæ)*, non latinezko ordainak ageri diren.

Osterantzeko kasua dugu VIII. idazpurukoa, ezik bilabideko testua eta corpusean dagoena bi dira: bilabidean, *Obispoen aginpidea ta aren zerbait artzen dabenai buruzkoa* irakur daiteke, baina corpusean bertan *Obispoen nagusitza ta bera daukienai buruzkoa* ageri da. Bertan hiztegia ezezik, itzulpen teknika ere aldaturik dago. Tipologia bereko jazokizuna dugu XIII. idazpuruko III. atalean: bilabidean *Elexako Nagusitzen batera edo parrokien bat zaintzeko izentaua izan dan Jaunzalearen eginbearrak eta kutun legeak* ageri da, eta corpusean, aldiz, *Elexeko [sic] Nagusitzen baterako edo parrokien bat zaintzeko izentaua izan dan Jaunzalearen eginbearrak eta eskubideak*. Ageri denez, aldeak nahikoa nabarmenak dira; iruzkindu ditzagun behinenak bananbanan: lehenengo eta bat, badirudi corpusean moldiztutsa isuri dena, zelan den *Elexeko*, eta corpusari erreparatuta, bederen, hala dirudi (628. araua, 1234gn., 1242gn. eta abar), baina hitz-elkarreetan *eleiz-*erabiliko du (1239gn., 1241gn. eta abar); bigarrenik, eta joskerari dagokion ginoan garrantzitsuena beharbada, *batera* eta *baterako* ditugu, gaitz da jakiten bertan ere moldiztuts baten aurrean gaudenentz, ezen aldea nabaria da, nola den adizlaguna izatetik izenlaguna izateraino; eta hirugarrenik, hiztegiaren alorretik gauzarik azalenekoa latinezko *privilegiaren* ordainean datza, ezik hemen ezin da esan moldiztuts bat dagoenik, batetik bestera dagoen aldea beren beregi eginda dagoenez.

Hiztegiaren alorrean ere sar ditzakegu ondorengo hauek: hirugarren zatiaren izenburuan, bilabidetik ikusita, *Erritarrak* ageri da, baina corpusean zehar, *Kistar erritarrak*, bibiek latinezko *de laicisen* ordaina eman nahi dutelarik; itzulpen teknikaren aldetik aldaketa garrantzitsua dago, zeren orokorretik berezira ematen den urratsa nahita emanikoa dela ikus litekeen, zehaztasun gehiagoren bila diharduelakoan edo. Askozaz nabarmenagoa da hau: XIX. idazpuruko II eta III. ataletan, bilabidean *Onegintza-Bazkunak* eta *Onegintza-Bazkuna-Buruak* ageri diren bitartean, corpusean *Azku-bazkunak* eta *Azku-bazkuna-buruak* irakur litezke. Aldaketa oso nabaria da.

Honaino, eta Elizako kargu-mailak aztertueran, nabarmendu nahi izan ditudan aldeak jakingarri hutsez eman dira, bestelako juzgurik egin barik.

4) Alde horien zergatia.

Alde nabari horiek ematerakoan, aita Ipolitoren bizitzaren jakingarriak ezagutzea ezinbesteko lana da. Haren bizitzaren luze-zabalaren gaineko jakingarriak zehatzago ezagutu nahi dituenak jo dezala ondoko liburuetara: Lino Akesoloren *Idazlan guztiak*; eta Julen Urkizaren *Karmeldarrak Markinan (1691-1991)*, *Historia eta agiriak* (azken liburu honen itzultzailea Patxi Uribarren izan zen). Nolanahi ere den, bertaratu nauen asmoa beste bat izanik, zelan den aztertzea zergatik dagoen alde handi hori corpusaren edukinetik bilabidera, bi aitamen labur egingo ditut, nire ustez, arazoa hein handi batean zuritze-ko balio dezaketena. *Erroma'ko Eleizearen Araudiaren hitzaurrea*, sinadura barik ageri bada ere, badakigu jakin, aita Lino Akesolok egin zuela, gorago aitaturiko liburuan bildu zenez, eta araudi honen gainean beren beregi honako hau dio: «*ELEIZ-ARAUDI AU. Legegizona eta euskalidazlea, biak batu eta alkartu dira emen. Gaztetako lana da, izan. 1924 inguruan amaituta. Orduko euskal-giro eta biztualdi baten ager-garri ederra. Eleizalde-tar Koldobika zanaren asmoai jarrai-*

tuz ibilli zala dirudi, Jaun onek Bizkai'ko Aldunditik ainbat lan egin eta eragin izan eban euskerea edozertarako gai egin-naiez, edozein gaitarako testoak atera gurez. Eleizalderen eriotzeak eta 1923'ko zapalketa-aizeak ondatu eben dana. Orduan egindako lan askoren aztarrenik ez da gelditu. Zorionez, Aita Larrakoetxeak egiña, Eleizearen lege barriak euskal-soiñekoz jaztea, ez zan galdu. Eta azken-urteetan Erroma'ra bialdu jakon eta berak makiñaz jo eta arean (zerbait) orraztu egin eban. Lan au amaitu ta laster il zan bera. Markiña'ra atsedeen billa etorrita.

»Eta ara bere lana. Bear bada, bizi izan balitz, argitaratze-koan, beste ikuturen batzuk geiago egingo eutsazan, orraztuz eta erraztuz. Bego dagoan lez, orain irurogetaka urte illunpean gelditutako, ixilpean egindako lan au, orduko giroaren agergerri eta aldi bateko Eleizearen lege batzuen lekuko.»

Barka bekit aitamenaren luzea, baina erabat argigarri gertatzen da, lan honen denboraren aldetiko nondik-norakoak zehazteko. Horren sendesgarri, aita Ipolitoren gogorazioak ere aldatuko ditut hona. Lehendaurrez argi dezagun ezen hona aldatuko diren berbak ez direla aita Ipolitok berak idatzirikoa, berak euskaraz idatzi baitzituen, baina berak utzitako eskuizkribu batetik (zein ezin izan baitut eskuratu), Julián Duñabeitiak Karmeldarren Boletin Ofizialaren 86. alean gaztele-rara aldatutik «RELACIÓN PARA DAR A CONOCER ALGUNAS CIRCUNSTANCIAS DE MI VIDA»tik pasarte batzuk ager-taraziko ditut:

«...Para el curso siguiente me nombraron profesor de Derecho canónico, quehacer que cumplí hasta 1924. En los años 1918-1922 en el colegio de Begoña y en los años 1922-1924 en Calahorra.

»Ya he confesado que vivía enamorado del euskera. Impulsado por este afán traduje al euskera el nuevo Derecho Canónico...

»En 1962-1963,...

»Uno de mis trabajos principales de estos últimos años fue re-dactar nuevamente mi traducción al euskera del derecho canónico, tal como me lo había pedido la Sociedad Kardaberaz.»

Beraz, bat datoz Lino Akesolok esanikoak eta aita Ipolitoren gogorazioak. Labur bilduz, bi dira eztabaida ezin daitezkeen jakingarriak: 1) aita Ipolitok itzulpen lana 1924. urterako amaituta zeukan, eta 2) lan horren gainean bere bizitzaren azken urteetan berriro jardun zuen.

Jakingarri finko horien aldean, ostera, badaude beste hari batzuk batu beharko lirakeenak, zelan diren zein urtetan hasi zen lehenengo itzulpena egiten, nolako aldaketa jasan zuen aita Ipolitoren hizkuntz irizpideak urteen puruz, eta bilabidea eta corpora denbora berean itzuliak ote diren. Ateratzen diren jakingarrietatik, badirudi aita Ipolitok 1918. urtearen inguruan ekin ziola itzulpen lanari, eta honek sei edo zazpi urteko tartea ematen digu haren itzulpen lanaren denbora-muga zehazteko, nahikoa luzea, ageri denez. Bigarren arazoari eman beharreko erantzuna, berriz, ez zait horren arantzatsua begitantzen, nahiz eta itxura batean bestea baino korapilatsuagoa eman; *Araudia* itzultzen hasi zen urtetik argitaratu zen urtera arte, 1978ra arte, alegia, hirurogei urte igaroak badira ere, euskarak bizi izan duen garbizaletasunaren arorik behinena izan da, eta lexikoan ezezik joskeran ere hori nabaria da corpus osoan zehar; zaila da hitz mailegaturik aurkitzea, *Obispoa* gora-behera; joskerari dagokion bezanbatean, ez dago galdekarietarik batere anaforiko gisa erabilita, bestela baitakoan isuri ezik; azkenik, kontutan hartu behar da, 1937. urtera arte joera berdinari eutsiko zitzaiola, handik eta 1970. urtearen hasierara arte iraungo zue-nez. Are gehiago, Euskal Herritik kanpora urte luzeetan egon eta euskalgintza berriaren girotik nahikoa isolaturik bizi izandako aita karmeldar honi dagokionez. Azkenik, eta itzulpen lanari datxekionez, bilabidearen eta corpusaren arteko desoreka dugu eta, nire irudiko, garbi esan daiteke biak ez direla aldi

berean egin; ikuspegi honetatik, hizkuntz irizpideak zelanbait aldatu direla esan liteke; hala ere, garbizaletasunaren baitara biltzen dira aldaketa guztiak: *Azku* eta *Onegintza*; alabaina, hemen dago koxka: zein idatzi da lehenago?, zein hobetsi zuen? Zaila da jakitea, hala ere, goian aitaturiko testuetatik, badirudi aita Ipolitok azken unera arte iraun zuela testua «orraztu eta errazten», baina corpusean ala bilabidean? Bietan ezinezkoa da, nire ustez, biak elkarretarik oso ezberdinak baitira. Bilabideak aurkezten duen batasuna oinarriztat harturik, azkenengoz jorratu zuen atala berori izan zela begitantzen zait, beti ere, Kardaberaz elkarteko arduradunek honi buruz argi handiago eman lezaketelakoan nago.

Bilbao, 1994ko urtarrilaren 19an.

Anjel Lobera Revilla